


DIRU-ITURRIAK

ELKARTUZen, edozein beste enpresak bezala, hainbat kostu eta inbertsio ordaindu behar izango ditugu, eta horiek aurrera eramanez ahal izateko, diru-iturriak behar izango ditugu. Lehenik eta behin, gure enpresak martxan jartzeko egin behar izango dugun hasierako kostua gutxi gorabehera, **20.000€**koa izango dela uste dugu; izan ere, lokal bat alokatu behar izango dugu hitzaldiak eta tailerrak antolatu ahal izateko, gure webgunea sortzeko programatzaileen laguntza behar izango dugu, edukiak sortu eta landu behar izango ditugu... Horretarako, nagusiki **diru-laguntzetaz** baliatuko gara, Euskal Herrian ekintzaileentzako aukera ugari baitaude. Ikertu ondoren, **aukerarik hoberenak** eta egokienak guretzat hurrengoak direla ondorioztatu dugu:

ENTITATEA	PROGRAMA	ZER ESKAINTZEN DU	ZENBATEKOA (€)	BALDINTZA NAGUSIAK
SPRI	EKINTZAILE	Laguntza + laguntza ekonomikoa ideia, prototipoa eta enpresa-plana baliozkotzeko, BIC baten tutoretzarekin	30.000-40.000€	- Proiektu berritzailea edo oinarri teknologikoa duena. - BIC batek babestu behar du.
LANBIDE + INGURALDE (Barakaldoko udala)	PERTSONA EKINTZAILEAK	Laguntza ekonomikoa + aholkularitza ekintzaile izan nahi duten langabetuentzat	1.000-1.500€	- Negozio-idea izatea edo enpresa-plana izatea - Hasi aurretik langabea izatea. - %15 gehitu daiteke
EUSKO JAURLARITZA	LANBIDE	Ekintzaileentzako zuzeneko dirulaguntza.	6000€ arte	Ekintzailea izatea altan, negozio-plana, beste laguntza batzuekin bateragarria.

ZENBATEKOA (€)



Gure lehen aukera eta ziuraski interesgarrienetako bat, aurreikusitako gastu guztiak behingoz bete ahal izango genituzkeelako, **SPRIk** (Enpresen Garapenarako Euskal



Agentziak) **ideia berritzaileak** eta **digitalak** dituzten ekintzaile **gazteentzat** eskainitako Ekintzaile **laguntza** izango litzateke. Laguntza hori ezin hobea izango litzateke guretzat; izan ere, gure enpresa, gaur egun behintzat, 25 urtetik beherako 4 gaztek osatzen dugu, eta horietatik 3 neskak gara, eta horrek ere indarra ematen dio zenbait dirulaguntza eskuratzeari. **Programa** hau **plataforma digitalen** sorrera estaltzeko diseinatuta dago; gure kasuan, **edukiak errazteko** eta **topaketak eta jarduerak antolatzeko** erabiliko dugun aplikazioa; euskarri digital horiek sortzeko programatzaileei egin behar dizkiegun ordainketak ere estaliko lituzke, gu ez baikara adituak eta kanpoko laguntza beharko dugula uste baitugu; **merkatu-azterketak** edo **errentagarritasuna** besteak beste ere barne daude; baita **marketin-kanpainak** ere besteak beste. Gainera, proiektu teknologikoak eta hezkuntzarekin erlazionatutako zerbitzuak oso ondo egokitzen dira horrelako laguntzetara, eta, beraz, gure proiektua hautagai perfektua izango litzatekelakoan gaude. [Informazio gehiago ikusteko eta izena emateko esteka](#)

Programa horren bidez, **15.000-30.000 €** lor ditzakegu, eta hori bultzada handia izango litzateke, eta gastu-aurreikuspen ezari aurre egiteko nahikoa. Gainera, parte hartzeko **baldintzak betetzen** ditugu: gazte ekintzaileen talde bat gara, proiektu berritzaile bat dugu, eta gizarte- eta hezkuntza-inpaktu argi bat. Esku hartu ahal izateko **falta** zaigun bakarra BIC inkubagailua izango litzateke, gure kasuan Barakaldoko enpresa izanda, **BIC Ezkerraldea**.



Inkubagailuak **zentro espezializatuak** dira ekintzaileei beren enpresa arrakastaz sortzen eta abiarazten laguntzeko. Proiektu **berrietarako** "akonpainamendu profesional" gisa funtzionatzen dute. **Euskadin**, inkubagailu horiei **BIC** (Business Innovation Center) esaten zaie. Horiek **enpresa-plana** egiten laguntzen dute, **laguntzak eskatzen** dituzte, **aholkulari** bat esleitzen dute proiektua berrikusteko eta **hobekuntzak** planteatzeko, mentoreekin, inbertitzaileekin eta prestakuntzekin konektatzen jartzen dituzte enpresa berriak eta lan-espazio merkeak edo doakoak eskain ditzakete.

Gure **bigarren** aukera **Lanbidek** pertsona ekintzailentzat eskeintzen duen laguntza da. Hau oso interesgarria izan daiteke guretzat jarduera berriak garatzeko enpreesa osatzen duen **pertsona bakoitzeko 1.500€** eskeintzen dituelako. Gainera, **%15** gehitzen da **emakume** izateagatik eta beste **%15 25 urte** baino **gutxiagokoa** izateagatik. Taldean 3 emakume egonda eta guztiok gazteak izanda, etekin handia atera dezakegu. Gure kasuan, neska bakoitzak jaso dezake: $1.500€ + \%30$ (emakume eta gaztea izateagatik) = 1.950€; eta mutilak $1.500€ + \%15$ = 1.725€. **Guztira, 7.575€.**

Honetan parte hartzeko baldintzak hurrengoak dira: **18 urte** baino gehiago izatea (orain ez dugu betetzen baina enpresa martxan jartzeko momentuan izango genituzke), **Lanbiden izena** ematea, langabezian egotea (zerrendetan izena emanda izatea) eta **ekintzailetzari buruzko ikastaro** edo aholkularitza bat egitea (normalean oso motzak eta errazak dira, 6-10 ordukoak). Gainera, ezinbestekoa da **enpresa berria izatea**, Euskadin sortzea, proiektua bideragarria izatea (Lanbidek negozio-plan oso simple bat eskatzen du) eta enpresak

gutxienez urte oso batean zehar mantentzea jarduera. Gainera, laguntza hau Ekintzailerekin bateragarria da. [Informazio gehiago ikusteko eta izena emateko esteka](#)

Azkenik, bi laguntza hauekin nahikoa izango ez balitz, azken subentzio bat daukagu: **Inguraldek eta Barakaldoko udalak eskainitako laguntzak**. Gure enpresak Barakaldon jatorria izanda, hau oso aukera egokia dela deritzogu. Izan ere, tokiko programak direnez, errezagoa izango da hauek eskuratzea. Enpresa sortu berrientzako laguntzak dira, hala nola **ELKARTUZ. 3.500 €arteko inbertsioa eskaintzen dute** ekipoetan, softwarean, domeinuan, webgunean, diseinuan...



Gainera, **2.500 €** ere eskaintzen dituzte **hasierako gastuetarako**, hala nola marketinerako, irudi korporatiborako, izapideetarako, kanpo-zerbitzuetarako... Benetan erabilgarriak izan daitezkeenak. Estimazio bat eginda, ondorioztatu dugu **ELKARTUZek 4.000 eta 6.000 €inguru jaso ditzakeela**, kopuru handi bat. Gainera, beste behin ere, laguntza horiek guztiz bateragarriak dira lehen aipatutakoekin.

[Informazio gehiago ikusteko eta izena emateko esteka](#)

[Informazio gehiago ikusteko eta izena emateko esteka](#)

Hala ere, laguntza publiko hauekin nahikoa izango ez balitz **laguntza pribatuen inguruan ere ikertu dugu**. [Hona hemen gure aukerarik aipagarrienak](#).

Esan bezala, gure proiektua martxan jarri ahal izateko diru-laguntzak izango dira gure iturri nagusia; baina enpresa ondo doanean beste era batzuk aurreikusi ditugu dirua lortzeko eta gure enpresari etekina ateratzeko.

Hasteko diru-iturri handi bat sortu nahi dugu ikasleentzako **Premium harpiditzen** bidez. Gure aplikazioan, beste hainbestetan bezala, maila desberdinak egongo dira: Oinarrizko sarbidea doakoa izango da, baina behin barruan, funtzionaltasun hobeagoa eta eduki pertsonalizatu eta eskusioak izateko subskripzio bat egongo da. Harpidetza honek hainbat funtzio izango ditu. Hasteko, plus hori ordaintzen duten bezeroek aukera izango dute **profesionalei** zuzenean galdetzeko **chat pribatuen bidez**. Lanbide bakoitzaren **eguneroko bideoetarako** sarbidea ere izango dute, horrela **lan-bizitzaren ikuspegi errealista** izango dute. Horri esker, jasoko duten **asistentzia ere askoz pertsonalizatuagoa** izango da. Azkenik, **tutoretzak eta talde-tailerreak** izango dituzte eskura inoiz baino lehenago orientazio hobeagoa izateko.

Beste aldetik, ikastetxeei **kuota** moduko batzuk eskaintzea beste aukera bat izan daiteke. Ikastetxeek urteko **lizentzia** bat ordain dezakete, horrela ikasle guztiek gure **app**-a erabil dezaten. Eredu horrek **orientazio akademikoa** hobetuko du, unibertsitatea uztea ekiditzen du eta ikasleen **motibazioa** handitzen du. Gainera, prestigioa ematen dio zentroari, zerbitzu **moderno** eta **erabilgarria** eskaintzen duelako. Urteko **subskribapen** honek ez du bakarrik ikasleentzat edo zentroarentzat abantailak izango, baita **irakasleentzat** ere. Izan ere, hauek haien ikasleak hobeto **ezagutu** eta **laguntzeko** aukera izango dute.



Horrez gain, enpresek plataforman parte hartu dezakete beren **lanbideak erakustearren**, haien lanaren bideoak partekatzeko eta hitzaldiak eskaintzeko gune bat izateko. Horri esker, Batxilergoko eta LHko gazteengana hurbiltzen dira eta aurretik aipatu dugun bezala, kalitatezko

langileak eskuratzen dituzte, aukeratzeko orduan lan horren alde onak eta txarrak ezagutzen zituztenak. Gainera, mota honetako partaidetzek haien marka edo enpresa ezagutarazi dezakete.

Enpresek gure aplikazioan edo hitzaldietan argitaratzeagatik ordaintzea beste aukera bat da. Adibidez, gure app-an iragarki-zerbitzu bat izan dezakegu, noski, hezkuntzarekin erlacionatutako enpresekin beti ere gure bezeroak aberasten jarraitzeko, eta enpresek ere jar ditzakete lanpostuen iragarkiak edo akademiei edo unibertsitateei buruzko informazioa gure iragarki-taulan, gure zerbitzuak erabiltzen dituzten ikasle guztiek informazio hori eduki ahal izateko. Jakina, **enpresa horiek diru-kopuru bat ordaindu beharko ligukete errepresentazioa edukitzeagatik.**

Finantziarioa lortzeko beste modu bat **eduki digitala saltzea** izan dezake. Horren barruan sartzen dira unibertsitate-gradua aukeratzeko moduari buruzko **ebook-ak**, "X ikasi aurretik jakin behar duzun guztia" motako **gidak**, **profesionalek sortutako ikastaro laburrak eta USaP ikasteko edo prestatzeko baliagarriak diren aholkuak**. Material horiek ikasleentzako eta haien familientzako laguntza praktiko eta eskuragarria izan dezakete eta guretzat diru-sarrerak lortzeko modua.

Plataformak ekitaldi **presentzialak eta online** ere antolatuko ditu, parte hartzeko sarrerak saltzeagatik, babesletzagatik eta ikastetxeekin lankidetzan aritzeagatik diru-sarrerak sortuz. Adibide bat **"ELKARTUZ Career Day"** izango litzateke, gazteek hainbat lan ezagutzeko eta profesionalekin hitz egiteko pentsatutako lanbideen bilketa handia, edonorentzako aproposa, gure helburu nagusia jarraitzeko grina jarraituta: lan-mundua eta ikasleak elkartzea.

Bukatzeko, momentuz dugun azken ideia plataformak **aholkularitza pertsonalizatua** eskaintzea da ikasleentzako edo familientzako ordainketa-paketeen bidez. Horien artean daude **orientatzaile adituekin banakako saioak eta bilerak** egitea, edo orientazioari eta laguntzari buruzko **txosten** osoak egitea gradua edo Lanbide Heziketa aukeratzeko prozesuan besteak beste. Oso zerbitzu errentagarria da, eta balio handikoa erabiltzaileentzat.

